

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Ekimenak funtziona dezan lehenbizi baserritarren eta herriko dendarien laguntza behar dugu, beraien borondatez ez badute jartzen, ez da ezer egongo eskaintzeko, orduan proiektua ez da aurrera aterako. Alde batetik, udalaren babesa lortzea ere interesatuko litzaiguke diru inbertsioa lortzeko eta etxetxoaren eta ontzien mantenu ona bermatzeko. Beste alde batetik, herritarrek parte hartze aktibo bat edukitzea interesatuko litzaiguke. Noski, materiala ondo zaintzea eta elkartasunerako jarrera egokia izatea behar-beharrezkoak ikusten ditugu.